



BALOREAK

ELKARLANA

1-ELKARLANA: ondokoa edo bestea ulertzen saiatuko gara, bestearekiko enpatia erakutsiz, laguntzea ematea posible dugunean eskainiz, nola ez, eskatutakoan jarrera ona erakutsiz eta baita laguntza behar dugunean eskatuz ere. Umiltasunez jokatu dugu bai zerbait ikasteko beharra daukagunean besteak erakusteko eta baita norbaiti zerbait erakutsi behar

EFIZIENTZIA

5-EFIZIENTZIA: Norberaren lana ondo eta arrakastara zuzendurik egiteko jarrera izango dugu; ezetz esan behar denean ezetz esanez, hasi eta bukatu arte lanak arduraz burutuz, norbere erantzukizun osoa hartuz, seriotasunez, inplikazioa eta konpromisoa erakutsiz. Denbora egoki kudeatu eta planifikatu dugu, eta lan-tresnak zein diren jakinez

SINESGARRITASUNA

2-SINESGARRITASUNA: Hitzez esandakoa, ekintzekin demostratu dugu. Bai bileretan, proiektuetan, bezeroekin, hornitzaileekin edo orokorrean edozein pertsonakin zerbaiteko konpromisoa hartutakoan bete egingo dugu eta kasuren batean konpromisoa ezin badugu bete aurrez abixatu dugu horretarako arrazoiak zehaztuz

GIZATASUNA

6-GIZATASUNA: Pertsonak guztiak errespetuz tratatu ditugu. Eguneroko jarduean edukazior jardungo dugu ondorengo hitzak sarritan erabiliz (Egunon, kaixo, mesedez, barkatu, sentitzen dut, portatu zera, oso ondo egin duzu, eskerrik asko,.....) Beste persona bategatik gaizkiesaka ez dugu jardungo edo ez dugu kritikatu bera aurrean ez badago behintzat. Esamesak sortu ordez dagokion lekuan galdetuz eta informatuz berauek sortzea ekiditeko jarrera erakutsiko dugu

PARTE HARTZEA

3-PARTE HARTZEA: bai proiektu, lan, bilera, hobekuntza akzio edo beste edozein ekintzatan parte hartze aktiboa izango dugu. Gauzak hobetu egin daitezkeela sinistuta, aldaketen aldeko jarrera eta berauek aurrera eramateko inplikazioa erakutsiko dugu, erresistentziak albo batetara utzita eta malgutasunez jokatuz eta bai enpresa edo/eta bezeroen exigentzia berrietara egokitzeko gaitasuna erakutsiz.

EUSKALDUNA

7-EUSKALDUNA: Euskara norberaren eta Alberdiko hizkuntza izango da, eta laneko edozein arlotan errespetuz eta egoki erabiliko dugu, ahoz nahiz idatziz; horretarako dauden tresnak egoki baliatuz. Euskararekiko sentiberatasuna eta konpromisoa ekintzen bidez erakutsi eta bultzatu dugu.

EKINTZAILETASUNA

4-EKINTZAILETASUNA: Lana modu errazago, azkarrago eta atsegiñago batean egiteko erak bilatu ditugu, iniziatiba erakutsiz, ilusioz jokatuz eta hazkunde jasangarria lortzeko helburua lortzeko perseberantea izanez. Egindakoa hobetu daitezkeela sinistuz (dagoenarekin ez konformatuz), monotoniatik urrun, ideiak, iradokizunak eta proposamenak egingo ditugu inoren zai edo bildurrik izan gabe eta aurrerakoia izanez eta anbizioz jokatuz.



ESTRATEGIA

IKUSPEGIA: Bailara mailan mekanizazio arloan erreferente izatea

ERRONKA ESTRATEGIKOAK



1-HAZKUNDE JASANGARRIA

Enpresaren errentagarritasuna hobetu etxe barruko prozesu desberdinen funtzionamendua eraginkorragoa eginez

2-BEZEROAK ETA MERKATUA

Egungo bezeroetan daukagun presentzia kontsolidatu, egungo sektoretan bezero berriak aurkitu gero eta balio erantsi handiagoa daukaten piezak eskainiaz. Etorkizuna daukaten merkatu sektore berriak garatu

3-TEKNOLOGIA

Teknologia berrietan puntan egonez, abantaila horiek gure egungo eta biharko bezeroei eskaini

4-PERTSONAK

Mekanizatuaren munduan bere ibilbide pertsonal eta profesionala garatu nahi duten pertsonak erakarri, enpresa proiektuan parte hartuz eta ilusionatuz, eta dauden pertsonak zainduz

5-GIZARTE ERANTZUKIZUNA

Bailara mailan modu arduratsuan jokatu eta eragin positiboa duten ekimenak bultzatu

XEDEA:

Mekanizazio osoko zerbitzua eskaintzea, 60 urteko esperientziarekin eta inguratzen gaituen gizartean modu arduratsuak jokatuz, gure jardunean pertsoneri eta euskarari garrantzia ematen